

ADISKIDETASUNA ALTXOR BAT DA TESTUAREKIN EGITEKO JARDUERAK

Jarduera honen bidez landu ditzakezun edukia:

Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala eremua:

1., 2., 3. eta 4. multzoak.

Ingurua ezagutzea eremua: 2. multzoa.

Hizkuntzak: **Komunikazioa eta irudikapena** eremua:

1., 3. eta 4. multzoak.

IRAKURKETA-FITXA:

ADISKIDETASUNA ALTXOR BAT DA

Beharko dugun materiala

«Adiskidetasuna altxor bat da» ipuina (Eranskina eta [esteka](#)).

Aurretiazko oharra

Testu hori baliatuta, ikasleak bultzatu nahi ditugu gogoeta egitera, gai honi buruz: zein alderdi eta balio diren garrantzitsuak **gure adiskidetasuna finkatzeko**, adiskidetasun horiek benetakoak izateko eta irauteko.

Adiskidetasun osasungarriak osatzeko eta horiei eusteko, eman eta jaso egin behar dugu. Lagunei axola zaizkizula eta estimu handitan dituzula jakinarazteak lagundu egin dezake lotura hori sendotzen.

Mezu honetan laburbilduta dago ipuinaren edukia:

Adiskidetasunari eusteko, besteak diren bezala onartu behar ditugu. Zer alde on dituzten nabarmendu, entzun eta lagundu, eta partekatu egin behar dugu.

Garapena

- Irakurri hurrei «**Adiskidetasuna altxor bat da**» testua.
- Behin testua irakurrita, egin gogoeta. Helburu horretarako, era honetako galderak egingo dizkiegu:
 - Zer egitea du gustuko protagonistak, bere lagun Danielarekin?
 - Oso garrantzitsua da elkar maite dugula erakustea.
 - Erakusten al diegu lagunei maite ditugula?
 - Ez bada horrela, erakutsi behar al diegu maite ditugula?
- Zer egin behar dugu, lagun batekin haserretzen garenean?
- Azaldu egingo diegu garrantzitsua dela adi egotea, ea lagunei zer gertatzen zaien. Izan ere, arreta jartzen badugu, lagundu egin ahal izango diegu laguntzarik behar badute, bihotz emango diegu goibel badaude, jolas guztietan sartuko ditugu, eta gure babesa izango dute, ezer behar badute.
 - Inoiz eman al diozue arreta inori? Hitz egiten utziko diegu.
- Eskatu azaltzeko, adibideak emanez, zer gustatzen zaion egitea edo zertan datorren bat lagunekin.

- Bukatzeko, gogorarazi zer dioen ipuinaren azken paragrafoak:
Mezu hau da aintzat hartu behar duzuna:
PARTEKATUZ, MAITATUZ eta BARKATUZ gero,
BENETAKOA dela ADISKIDETASUNA.
Eta zainduz gero, altxorrik handiena eskuratuko
duzula!

Argi al duzue zer esan nahi duen?

ADISKIDETASUNA ALTXOR BAT DA

Nire lagun Daniela oso da dibertigarria, jolasean igarotzen dugu egun guztia.

Nire lagun Danielak nigan du pentsatzen, eskuzabala da eta badaki partekatzen.

Nire lagun Danielak badaki zer dudan gustukoen, eta zerbait ongi eginez gero, hara non zorientzen nauen!

Nire lagun Daniela maite dut biziki, laguntzarik behar badut aise ematen baitit.

Nire lagun Danielak bihotz ematen dit goibel banabil, eta txiste bat kontatzen dit alaitu nadin.

Nire lagun Daniela alde daukat beti, eta huts eginez gero, hobetzen laguntzen dit.

Nire lagun Danielak bihotz ona dauka, eta elkarri, haserretuz gero, eskatzen diogu barka.

Nire lagun Daniela oso da berezi, guztia partekatu eta hor gabiltza pozik.

Mezu hau da aintzat hartu behar duzuna:

PARTEKATUZ, MAITATUZ eta **BARKATUZ** gero,
BENETAKOA dela **ADISKIDETASUNA**.

Eta zainduz gero, **altxorrik handiena** eskuratuko duzula!